

**GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO
ADMINISTRAZIOA**

4

**ADMINISTRACIÓN DEL TERRITORIO
HISTÓRICO DE GIPUZKOA****GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA****KULTURA, GAZTERIA ETA KIROL
DEPARTAMENTUA**

Bertako kirola eta kirol egokitua sustatzeko diru laguntzak emateko oinarri arautzaileak eta 2015eko deialdia.

Diputatuen Kontseiluak, 2015eko otsailaren 24an egindako batzaraldian, besteak beste, ondoko erabakia hartu du:

Euskadiko kirolaren 1998ko ekainaren 11ko 14/1998 Legeak, 15.1 artikuluan dio kirol federazioak erakunde pribatuak direla, irabazi-asmorik gabekoak eta nortasun juridikodunak, beren lurralde esparruan kirol mota bera sustatzen edo praktikatzan duten kirolari, teknikari, epaile, elkarte eta taldeak biltzen dituztenak.

Lege testu horrek bere artikuluetan behin baino gehiagotan aipatzen ditu, zuzenean edo zeharka, kirol federazioak eta zer nolako harremanak ezarri behar dituzten babesle dituzten administrazioekin: alde batetik, federazioek bete behar dituzten eginkizun publiko administratiboei begira; eta, beste aldetik, administrazioek federazioei eman behar dieten babesari eta egin behar dieten kontrolari begira.

Eskuordetuta uzten dituen eginkizun publikoen parean, administrazioek kirol federazioak kontrolatzeko eta babesteko ahalmen garrantzitsuak dituzte beren esku, hala nola: federazioen eraketa onartzea eta, hala balegokio, baliogabetzea; federazioen ekintza asko kontrolatzea; eta federazioaren ikuskaritza orokorra. Ahalmen horien ondoan daukate, ordea, federazioei baliabide ekonomikoak eta laguntza teknikoa emateko betebeharrak, aipatu diren eginkizunak bete ditzaten.

Beste alde batetik, 1998ko ekainaren 11ko 14/1998 Legeak 2.3 artikuluan, n) eta t) ataletan, dioenaren arabera, printzipio gidarien artean dago botere publikoek kirola egiteko eskubidea behar bezala bermatuko dutela, dituzten ahalmenen barruan, besteak beste: ezintasun fisiko, psikiko, sentzorial edo mistoak dituzten herritarren artean kirol-ekintzak sustatuz, zeharo gizarteratu daitezela laguntzeko; eta bertako kirolak babestuz eta bultzatuz.

Ildo horretan, erabaki honen bidez onartzen dira bertako kirolak eta kirol egokitua sustatzeko diru laguntzak arautzeko oinarriak. Halaber, diru laguntza horien 2015eko deialdia ere onartzen da.

Horrenbestez, Diputatuen Kontseiluak, Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentuko foru diputatuaren proposamenez, eta eztabaidatu ondoren,

ERABAKITZEN DU

Lehenengo. Onartzea bertako kirolak eta kirol egokitua sustatzeko diru laguntzak emateko oinarri arautzaileak, erabaki honen bukaeran biltzen direnak.

DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA**DEPARTAMENTO DE CULTURA, JUVENTUD Y
DEPORTE**

Bases reguladoras del otorgamiento de subvenciones para la promoción del deporte autóctono y del deporte adaptado y convocatoria correspondiente a 2015.

El Consejo de Gobierno Foral, en sesión celebrada el 24 de febrero de 2015, ha adoptado entre otros el siguiente acuerdo:

La Ley 14/1998, de 11 de junio, del deporte del País Vasco, conceptúa, en su artículo 15.1, a las federaciones deportivas como entidades privadas, sin ánimo de lucro y con personalidad jurídica, que reúnen a deportistas, técnicos, jueces, asociaciones y otros colectivos dedicados a la promoción o la práctica de una misma modalidad deportiva dentro de su ámbito territorial.

Ese texto legal, a lo largo de su articulado, efectúa varias alusiones, directas e indirectas, a las federaciones deportivas y a las relaciones que deben establecer con las respectivas administraciones de tutela en orden al ejercicio de las funciones públicas de carácter administrativo que deben desempeñar aquéllas y a la correlativa protección y control que deben dispensarles éstas.

En correlación a estas funciones públicas delegadas, las administraciones respectivas tienen atribuidas importantes facultades de control y tutela sobre las federaciones deportivas, que van desde la aprobación de su constitución y su eventual revocación, hasta el control de buena parte de sus actos, pasando por la intervención total de la federación; pero, también, la obligación de dotar económicamente y asistir técnicamente a los entes federativos para facilitarles el ejercicio de esas funciones.

Por otra parte, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 2.3, apartados n) y t), de la Ley 14/1998, de 11 de junio, se establece como uno de los principios rectores que los poderes públicos, en el ámbito de sus respectivas competencias, garantizarán el adecuado ejercicio del derecho a la práctica deportiva mediante una política deportiva basada, entre otros: en el fomento de las actividades deportivas entre la ciudadanía que padezca minusvalías físicas, psíquicas, sensoriales o mixtas al objeto de contribuir a su plena integración social; y en la protección y fomento de las modalidades deportivas autóctonas.

Mediante el presente acuerdo se aprueban las bases reguladoras del otorgamiento de subvenciones para la promoción del deporte autóctono y del deporte adaptado. Asimismo, se aprueba la convocatoria 2015 de dichas subvenciones.

En su virtud, el Consejo de Gobierno Foral, a propuesta de la diputada foral del Departamento de Cultura, Juventud y Deporte, y previa deliberación,

ACUERDA

Primero. Aprobar las bases reguladoras del otorgamiento de subvenciones para la promoción del deporte autóctono y del deporte adaptado, que se insertan al final del presente acuerdo.

Bigarren. Onartzea aipatu diru laguntzen 2015eko deialdia.

1. Finantziazioa.

1.1. Diru laguntza hauen deialdiak bostehun eta berrogeita sei mila (546.000,00) euroko zenbatekoa du; eta gastu hori baimentzen da 1.0230.300.481.00.07 2015 aurrekontuko kontu sailaren kargura.

1.2. Deialdi honentzat hasieran aurreikusitako kopurua handitu edo txikitu egin dezake zenbatekoaren arabera horretarako eskumena duen organoak, diru laguntzak emateko ebazpena hartu aurretik eta deialdi berririk egin behar izan gabe. Kopuru gehigarria eraginkorra izateko baldintza izango da diru laguntza ematea ebatzi aurretik kreditua erabilgarri deklaratea.

2. Eskerak aurkezteko epea.

2015eko martxoaren 31a izango da mugaegun, oinarrietan aipatzen diren agiriak eta formularioak aurkezteko. Dokumentazio horretan azaldu behar dira federazio bakoitzari dagokion laguntza eta jarduera programa baloratzeko behar diren datuak. Dokumentazio hori laguntza eskaeratzat hartuko da, Kirol Zuzendaritza Nagusian mugaeguna baino lehenago aurkeztua izan bada.

Eskola kiroleko jardueri buruzko laguntza teknikoari dago-kionez, federazio guztiek aurkeztu behar dituzte, 2015eko urriaren 31 baino lehen, bai 2014-2015 ikasturtearen kontu zurigarriak, bai 2015-2016 ikasturterako jarduketa plana.

Hirugarren. Erabaki honen bidez onartutako oinarri arautzaileek Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen diren egunetik aurrera izango dute eragina.

Erabaki hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Interesatuak erabaki honen aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkez dezakete Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegietan, argitaratu eta biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik berraztertzeo hautazko errekurtsioa aurkezteko Diputatuen Kontseiluari, argitaratu eta biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzeoaren berriazko ebazpena eman edo ustezko ezespina gertatu arte. Dena dela, egoki irizitako beste edozein errekurtsio aurkez daiteke.

Donostia, 2015eko otsailaren 25a.—Ainhoa Gainberri Txintxurreta, Departamentuko idazkari teknikoa. (1869)

ONARRI ARAUTZAILEAK

1. Xedea.

Oinarri hauen helburua da arautzea bertako kirola eta kirol egokitua sustatzen duten Gipuzkoako kirol federazioei zuzendutako diru laguntzak, elkarrekiko lehiari ematekoak, beraien jarduketa programak garatzeko.

1. Kirol federazioen ohiko jarduera finantzatzea.
2. Eskola kirolerako laguntza teknikoa.
3. Gipuzkoako kirol selekzioak.
4. Teknikifikazio programak.
5. Federazio bakoitzaren gainerako berezko programak.

Segundo. Aprobare la convocatoria 2015 de dichas subvenciones.

1. Financiación.

1.1. La convocatoria de las presentes subvenciones alcanza un importe de quinientos cuarenta y seis mil (546.000,00) euros, gasto que se autoriza con cargo a la partida presupuestaria 1.0230.300.481.00.07 2015.

1.2. El importe inicialmente previsto para dicha convocatoria podrá ser incrementado o disminuido por el órgano que tenga atribuida la competencia por razón de la cuantía, en cualquier momento anterior a la resolución de concesión y sin necesidad de una nueva convocatoria. La efectividad de la cuantía adicional queda condicionada a la declaración de disponibilidad del crédito en un momento anterior a la resolución de la concesión de la subvención.

2. Plazo de presentación de solicitudes.

Se establece el día 31 de marzo de 2015 como término del plazo de presentación de los formularios y documentos a los que se refieren las bases, con los datos necesarios para poder valorar la subvención que corresponde a cada federación y el programa de actividades. Si la documentación indicada ya hubiera sido presentada ante la Dirección General de Deporte con anterioridad a la citada fecha, la misma será tomada en consideración como solicitud de subvención.

En relación con la asistencia técnica a las actividades de deporte escolar, la totalidad de las federaciones deberán presentar con anterioridad al 31 de octubre de 2015 tanto la cuenta justificativa del curso 2014-2015 como el plan de actuación para el curso 2015-2016.

Tercero. Las bases reguladoras aprobadas por el presente acuerdo producirán efectos desde el día de su publicación en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

Este acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer directamente contra él recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación.

No obstante, las personas particulares, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposición ante el Consejo de Gobierno Foral, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

San Sebastián, a 25 de febrero de 2015.—La secretaria técnica del Departamento, Ainhoa Gainberri Txintxurreta. (1869)

BASES REGULADORAS

1.ª Objeto.

El objeto de las presentes bases es regular el otorgamiento de ayudas económicas, en régimen de concurrencia competitiva, a las federaciones deportivas guipuzcoanas que promuevan el deporte autóctono y el deporte adaptado, para el desarrollo de sus programas de actuación:

1. Sosténimiento de la actividad ordinaria de las federaciones deportivas.
2. Asistencia técnica al deporte escolar.
3. Selecciones deportivas guipuzcoanas.
4. Programas de tecnificación.
5. Resto de programas propios de cada federación.

2. Diru laguntzen onuradunak.

1. oinarri hauetan arautzen diren diru laguntzen hartzaile izan daitezke bertako kirolen eta kirol egokituaren modalitateetan Gipuzkoako kirol federazioak, betiere baldintza hauek betezen badituzte:

– Gipuzkoako kirol federazio gisa inskribatuta egotea Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol Erakundearen Erregistroan.

– Erakundearen jardura nagusia izatea bertako kirolak edota kirol egokitua sustatzea eta garatzea.

– Eskola kirolaren arloan indarrean dagoen araudia betetzea.

2. Entitate eskatzaileei ez diete eragin behar 2007ko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzkoak, 12. artikulua 2, 3 eta 4. atalean ezarritako debekuren batek.

3. Diru laguntzen onuradun izateko debekuek eragiten ez dietela egiaztatze aldera, diru laguntzaren eskaerarekin batera erantzukizuneko adierazpena aurkeztu ahal izango dute, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentuko Kirol Zuzendaritza Nagusiaren ereduaren arabera.

Edonola ere, zerga obligazioak eta Gizarte Segurantzarako egitekoak egunean dituztela egiaztatze aldera, dagokien organoek egindako ziurtagiriak aurkeztu behar dituzte; edo horren ordez, baimena eman ahal izango dute espresuki informazio hori aipatu organoek zuzenean Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentuari laga diezaioten.

3. Diru laguntzetarako eskaerak aurkezteko modua eta epea.

1. Foru Administrazioaren eremuan bitarteko elektronikoen erabilera arautzen duen 2010eko irailaren 28ko 23/2010 Foru Dekretuari, eta Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentuko diru laguntzei buruzko espedienteen hainbat tramite bitarteko elektronikoen bidez egiteko obligazioa arautzen duen 2011ko abenduaren 30eko 03-131/2011 Foru Aginduak jarraikiz (2014ko otsailaren 17ko 03-025/2014 Foru Aginduak aldatutakoak), eskaera formularioa bide elektronikoz aurkeztu behar da: Foru Administrazioaren aurrean egin beharreko jarduketetan nortasuna eta ordezkaritza egiaztatzea arautzen duen 2006ko irailaren 12ko 40/2006 Foru Dekretuak aurreikusitako moduan sinadura elektronikoa edo pasahitza erabilita. Aipatutako formulario horrekin batera aurkeztuko da oinarri honen 2. atalean adierazitako dokumentazioa.

Eskaera eta harekin joan behar duen dokumentazioa internet bidez aurkeztu behar da, Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa (<https://www.gfaegoitza.net>) dagoen diru laguntzen atarian barrena, lehen aipatutako 2010eko irailaren 28ko 23/2010 Foru Dekretuak, eta 2011ko abenduaren 30eko 03-131/2011 Foru Aginduak ezarritakoari jarraikiz.

2. Eskaerarekin batera agiri hauek aurkeztuko dira:

– Deialdi urterako edo indarrean dagoen kirol denboraldirako jarduketa plana: jardura programak zehaztuta.

– Jarduketa planaren diru-sarreraren eta gastuen aurrekontu zehatza, genero ikuspegiarekin.

3. Deialdi bakoitzaren informazioa eta eskaera orri normalizatuak eskuragarri egongo dira Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa (<https://www.gfaegoitza.net>) eta Kirol Zuzendaritza Nagusiaren www.gipuzkoakirolak.net web orrian.

4. Eskaerak aurkezteko epea urteko deialdian ezarriko da.

2.^a Entidades beneficiarias de estas subvenciones.

1. Tendrán la consideración de beneficiarias de las subvenciones reguladas en las presentes bases las federaciones deportivas guipuzcoanas de modalidades deportivas autóctonas y de deporte adaptado que cumplan los siguientes requisitos:

– Estar inscritas como federaciones deportivas guipuzcoanas en el Registro de Entidades Deportivas del País Vasco.

– Tener como actividad principal el fomento y desarrollo de las modalidades autóctonas y/o el deporte adaptado.

– Cumplir con la normativa vigente de deporte escolar.

2. Las entidades solicitantes no deberán incurrir en ninguna de las prohibiciones de los apartados 2, 3 y 4 del artículo 12 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

3. La acreditación de no incurrir en las prohibiciones para obtener la condición de beneficiaria de las subvenciones podrá realizarse mediante la presentación de una declaración responsable que se acompañe a la solicitud de subvención, según modelo que facilite la Dirección General de Deporte del Departamento de Cultura, Juventud y Deporte de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

En todo caso, para acreditar el cumplimiento de las obligaciones tributarias y con la Seguridad Social, deberán aportar los correspondientes certificados emitidos por los órganos competentes; o, en su lugar, podrán autorizar expresamente la cesión de dicha información por parte de los citados órganos directamente al Departamento de Cultura, Juventud y Deporte.

3.^a Forma y plazo de presentación de las solicitudes de subvención.

1. De conformidad con lo dispuesto en el Decreto Foral 23/2010, de 28 de septiembre, por el que se regula la utilización de medios electrónicos en el ámbito de la Administración Foral, y en la Orden Foral 03-131/2011, de 30 diciembre, por la que se regula la obligación de realizar por medios electrónicos determinados trámites de los expedientes de subvenciones del Departamento de Cultura, Juventud y Deporte (modificada por Orden Foral 03-025/2014, de 17 de febrero), el formulario de solicitud deberá presentarse obligatoriamente vía Internet, utilizando la firma electrónica o la clave operativa contempladas en el Decreto Foral 40/2006, de 12 de septiembre, por el que se regula la acreditación de la identidad y la representación en las actuaciones ante la Administración Foral. Dicho formulario deberá ir acompañado de la documentación que se señala en el apartado 2 de la presente base.

La presentación de la solicitud y la documentación complementaria vía Internet se realizará a través del portal de subvenciones ubicado en la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa (<https://www.gfaegoitza.net>), en los términos previstos en el Decreto Foral 23/2010, de 28 de septiembre, y en la Orden Foral 03-131/2011, de 30 diciembre, antes referidos.

2. La instancia de solicitud deberá ir acompañada de la siguiente documentación:

– Plan de actuación del año de la convocatoria o de la temporada deportiva en vigor, detallando los diferentes programas de actuación.

– El presupuesto, de ingresos y gastos detallado y con perspectiva de género del plan de actuación.

3. La información de cada convocatoria y los impresos normalizados de solicitud estarán disponibles en la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa (<https://www.gfaegoitza.net>) y en la página web de la Dirección General de Deporte (www.gipuzkoakirolak.net).

4. El plazo de presentación de solicitudes se fijará en la convocatoria anual.

5. Erakunde eskatzaileek ez dituzte jada Gipuzkoako Foru Aldundiak badituen dokumentuak aurkeztu behar, 1992ko azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, 35.f) artikuluan aurreikusitakoari jarraiki, betiere dagokion prozedura amaitu ondoren ez badira bost urte iragan. Eskaera orrian zein organoren aurrean edo bulegotan eta noiz aurkeztu ziren edo, hala badagokio, egin ziren, adierazi behar da.

4. Akatsak zuzentzea eta dokumentazio osagarria aurkeztea.

1. Eskaerak edo horrekin batera doan dokumentazioak ez baditu identifikazio datuak biltzen, akatsen bat badu edo zerbait falta bada, eskatzaileari eskatuko zaio, 1992ko azaroaren 26ko 30/1992 Legeak 71.1 artikuluan ezarritakoari jarraiki, hamar eguneko epean akats horiek zuzentzeko; eta adieraziko zaio ezen, hori egingo ez balu, eskaeran atzera egin duela uler-tuko dela, aipatu legearen 42.1 artikuluan aurreikusitako moduan.

2. Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentuak eskaera ebaluatu eta erabakia hartzeko beharrezkotzat jotzen duen dokumentazio eta informazio osagarri oro eskatu ahal izango dio eskatzaileari.

5. Emateko prozedura.

1. Diru laguntza hauek elkarrekiko lehiakortasun jardunbideaz emango dira.

2. Laguntzak emateko prozedura ofizios hasiko da, deialdi publiko bidez. Deialdia organo eskumendunak onartuko du eta Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko da.

6. Balorazio irizpideak: Diru laguntzen ebaluazioa eta kuantifikazioa.

1. Aurkeztutako jarduketa planetan sartu diren programa guztiak banan bana balioztatuko dira.

2. «Federazioaren ohiko jarduera finantzatzea», «Eskola kirolerako laguntza tekniko», «Gipuzkoako kirol selekzioak» eta «Teknifikazio programak» programak honela balioztatuko dira: Gipuzkoako kirol federazioei diru laguntzak emateko oinarri arautzaileetan, Diputatuen Kontseiluaren 2014ko abenduaren 22ko Erabakiaz onartu eta 2015eko urtarrilaren 9ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN (235. zk.), argitaratu zirenetan, programa horientzat ezartzen diren irizpideen arabera; eta ateratzen den puntuazioari 1,10eko zuzenketa-indizea aplikatuta.

3. Gainerako programei dagokienez, irizpide hauek erabiliko dira diru laguntzaren zenbatekoa zehazteko:

– Federazioaren lan administratiboak: kostuaren %40a.

– Teknikariak: Federazioko langileak badira dagokion soldataren %70; eta kontratatuak badira ordu eta teknikariko 35,00 euro gehienez. Programatutako jarduerak garatzen direneko denbora bakarrik hartuko da kontuan.

– Instalazioen alokairua: kostuaren %60a.

– Kirol material suntsikorra: kostuaren %50a.

– Bidaia gastuak: kostuaren %60a.

– Epaila gastuak: kostuaren %60a.

– Azpikontratututako lanengatiko gastuak: kostuaren %50a.

– Prestakuntza ikastaroengatiko gastuak: kostuaren %50a.

– Beste gastuak: kostuaren %50a.

Nolanahi ere, gehienez ere programaren aurrekontu osoaren %80ko diru laguntza emango da.

5. Las entidades solicitantes no estarán obligadas a presentar los documentos que ya obren en poder de la Diputación Foral de Gipuzkoa, de conformidad con lo previsto en el artículo 35.f) de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, siempre que no hayan transcurrido más de cinco años desde la finalización del procedimiento al que correspondan. Deberán indicarse en el impreso de solicitud la fecha y el órgano o dependencia en que fueron presentados o, en su caso, emitidos.

4.ª Subsanación y documentación complementaria.

1. Si la solicitud o la documentación que debe acompañarla no reunieran los datos de identificación, adolecieran de algún error o fueran incompletas, se requerirá a la entidad solicitante, de acuerdo con lo establecido en el artículo 71.1 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, para que, en el plazo de diez días, subsane los defectos detectados, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistida de su petición, en los términos previstos en el artículo 42.1 de ese mismo texto legal.

2. El Departamento de Cultura, Juventud y Deporte de la Diputación Foral de Gipuzkoa podrá requerir a las entidades solicitantes cuanta documentación e información complementaria considere necesarias para la adecuada evaluación y resolución de la solicitud presentada.

5.ª Procedimiento de concesión.

1. La concesión de las subvenciones se efectuará en régimen de concurrencia competitiva.

2. El procedimiento de concesión de las ayudas se iniciará de oficio, mediante convocatoria aprobada por el órgano competente publicada en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

6.ª Criterios de valoración: evaluación y cuantificación de las subvenciones.

1. Se realizará una valoración independiente de cada uno de los programas que se hayan incluido en los planes de actuación presentados.

2. Los programas de «Sostenimiento de la actividad ordinaria de la federación», «Asistencia técnica al deporte escolar», «Selecciones Deportivas Guipuzcoanas» y «Programas de Tecnificación» se valorarán de acuerdo con los mismos criterios contemplados para dichos programas en las bases reguladoras de las subvenciones destinadas a las federaciones deportivas guipuzcoanas aprobadas por Acuerdo del Consejo de Gobierno Foral de 22 de diciembre de 2014 (BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 5, de 9 de enero de 2015),, aplicando al importe resultante un índice corrector del 1,10.

3. En el resto de los programas, se subvencionará conforme a los siguientes criterios:

– Trabajo administrativo de la federación: el 40% del coste.

– Personal técnico: Si el personal técnico es trabajador de la federación un 70% del salario correspondiente; y si el personal técnico es subcontratado hasta un máximo de 35,00 euros/hora y persona. Solo se considerará el tiempo en el que se desarrollen las actividades programadas.

– Alquiler de instalaciones: el 60% del coste.

– Gastos de material deportivo fungible: el 50% del coste.

– Gastos de viaje: el 60% del coste.

– Gastos de arbitrajes: el 60% del coste.

– Gastos de trabajos subcontratados: el 50% del coste.

– Gastos de cursos de formación: el 50% del coste.

– Otros gastos: el 50% del coste.

En cualquier caso, se subvencionará hasta un máximo del 80% del presupuesto total del programa.

4. Programa bakoitzari dagokion diru laguntza zenbatekoa den kalkulatu ondoren, zenbateko horiek batu egingo dira: eta hori izango da federazio bakoitzari dagokion gehieneko kopurua.

5. Federazio bakoitzari dagokion kopurua ez da izango inoiz aurkeztutako planaren kostu osoaren % 80 baino gehiagokoa, Eskola Kiroleko programa salbu -programa horretan %100eraino iritsi daiteke diru laguntza-.

6. Diru laguntzak guztien batura ez da izango aurrekontu kontu sailean jasotako zenbateko osoa baino gehiagokoa. Bestela, federazioei dagozkien diru laguntzak gutxitu egingo dira, portzentaje berean.

7. *Finantziazioa.*

1. Hala badagokio, eman daitezkeen diru laguntzak deialdiaren urteko Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aurrekontu Orokorren kargura finantzatu dira. Deialdiak ezarriko du diru laguntzak aurrekontuko zein kredituren kargurako izango diren.

2. oinarri hauen xede diren diru laguntzak xede bereko beste diru laguntza, laguntzak, sarrera edo baliabide batzuekin bateragarriak izango dira, edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatuk emandakoekin, estatukoak, Europar Batasunekoak edo nazioarteko erakundeak izanda ere; betiere ez bada dagokion jarduketaren kostua gainditzen, eta horren inguruan beste diru laguntzak arautzen dituzten araudiek ezar dezaketaren kalterik gabe.

3. oinarri hauetan araututako diru laguntzen zenbatekoak ezin du inola ere gainditu diruz lagundutako jardueraren kostua, ez berak bakarrik, ez beste diru laguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin batera.

4. Diru laguntza emateko kontuan hartu diren baldintzetan edozein aldaketa gertatuz gero, eta nolahi ere, oinarri hauetan baimendutako kasuez kanpo diru laguntza hauekin batera laguntzak jasoz gero, gerta daiteke diru laguntza emateari buruzko ebazpena aldatzea.

5. oinarri hauetan erregulatutako diru laguntzak ez dira estatu laguntzak Europar Batasunaren Funtzionamendu Itunak 107.1 artikuluan ezarritakoaren arabera. Izan ere, onuradunak ez dira jarduera ekonomikoak gauzatzen dituzten enpresak. Horrenbestez, aipatu Itunak 108.3 artikuluan xedatzen duen jakinarazpen prozeduratik salbuetsita daude laguntza hauek.

8. *Diru laguntzen zenbatekoa.*

Diru laguntzaren zenbatekoa eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioaren arabera finkatuko da, aurrekontuan erabilgarri dagoena eta 6. oinarrian ezarritako balorazio eta kuantifikazio irizpideak kontuan izanda.

9. *Prozedura antolatu eta bideratzeko eskumena duten organoak.*

1. Diru laguntza hauek emateko prozedura bideratzea Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentuko Idazkaritza Teknikoari eta Kirol Zuzendaritza Nagusiari egokituko zaie.

2. Eskaerak Kirol Zuzendaritza Nagusiko teknikariek aztertu dituzte eta haiek, behar izanez gero kanpoko adituen laguntzarekin, balorazio txostena egingo dute. Txosten hori diru laguntzetarako eratuko den Batzorde Ebaluatzaileari igorriko zaio, egindako ebaluazioaren emaitza zehaztuko duen ebazpen proposamena egin dezan; eta, ondoren, eskumena duen organoari aurkeztuko zaio onar dezan.

Batzorde Ebaluatzaileko kide izango dira Kiroleko zuzendari nagusia (batzordeburu izango da); Kiroleko zerbitziburua; zerbitzu horretako teknikari bat; Ogasun eta Finantza Departamentuko Kontuhartzaile eta Auditoria Zerbitzuko teknikari bat;

4. Una vez calculada la subvención correspondiente a cada programa, se sumarán dichas cantidades, siendo dicha suma el importe máximo correspondiente a cada federación.

5. En ningún caso el importe total correspondiente a cada federación será superior al 80% del coste final del plan presentado, exceptuando el programa de deporte escolar que se podrá subvencionar hasta el 100%.

6. La suma total de las subvenciones no podrá superar el importe total de la consignación de la partida presupuestaria. En caso contrario, las subvenciones correspondientes a cada federación se verán disminuidas en el mismo porcentaje.

7.^a *Financiación.*

1. Las subvenciones que, en su caso, puedan otorgarse se financiarán con cargo a los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa del año de la convocatoria. La convocatoria establecerá los créditos presupuestarios con cargo a los cuales se financiarán las subvenciones.

2. Las subvenciones objeto de las presentes bases serán compatibles con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera administraciones o entes públicos o privados, estatales, de la Unión Europea o de organismos internacionales, siempre que no se rebase el coste de la actuación subvencionada, y sin perjuicio de lo que al respecto pudiera establecer la normativa reguladora de las otras subvenciones concurrentes.

3. El importe de las subvenciones reguladas en estas bases en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, supere el coste de la actividad subvencionada.

4. Toda alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención y, en todo caso, la obtención concurrente de otras aportaciones fuera de los casos permitidos en las presentes bases, podrá dar lugar a la modificación de la resolución de concesión.

5. Las subvenciones reguladas en estas bases no constituyen ayuda estatal en los términos del artículo 107.1 del Tratado de Funcionamiento de la Unión Europea, dado que sus beneficiarios no son empresas que desempeñen actividades económicas; en consecuencia, estas ayudas quedan excluidas del procedimiento de notificación previsto en el artículo 108.3 de dicho Tratado.

8.^a *Cuantía de las subvenciones.*

El importe de la subvención se fijará con arreglo a la documentación aportada por la entidad solicitante, teniendo en cuenta las disponibilidades presupuestarias y los criterios de valoración y de cuantificación establecidos en la base 6.^a.

9.^a *Órganos competentes para la ordenación e instrucción del procedimiento.*

1. La instrucción del procedimiento de concesión corresponderá a la Secretaría Técnica del Departamento de Cultura, Juventud y Deporte y a la Dirección General de Deporte.

2. Las solicitudes serán analizadas por el personal técnico de la Dirección General de Deporte que, con la eventual asistencia de personas expertas externas, elaborará un informe de valoración de las mismas, informe que será sometido a la Comisión Evaluadora que se constituya, la cual, a su vez, emitirá una propuesta de resolución en la que se concretará el resultado de la evaluación efectuada y que será elevada al órgano competente para su aprobación.

Formarán parte de la Comisión Evaluadora el director general de Deporte, que presidirá la misma; el jefe del Servicio de Deporte; un técnico o una técnica de dicho servicio; un técnico o una técnica del Servicio de Intervención y Auditoría del Depar-

eta Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentuko idazkari teknikoak, batzordeko idazkari gisa; edo, bestela, haien ordezkari izendatutakoak.

10. Diru laguntzak emateko ebazpena.

1. Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentuko foru diputatuak izango da oinarri hauetan bildutako diru laguntzak emateko ebazteko eskumena duena.

Kirol Zuzendaritza Nagusiaren iritziz komeni bada, lankidetzaren hitzarmen bat egin ahal izango da diru laguntzaren federazio onadunarekin; eta bertan zehaztuko dira: helburuak; kirol programak; aurrekontuak; alde bakoitzaren eskubide eta betebeharrak; eta eginkizun publiko administratiboak betetzeari lotutako bestelako gaiak; baita horregatik guztiagatik dagokien laguntzaren zenbatekoa ere.

2. 1992ko azaroaren 26ko 30/1992 Legeak 59.6.b) artikuluan ezarritakoaren arabera, deialdiaren ebazpena Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko da. Argitalpen horrek banakako jakinarazpena ordeztuko du; eta jakinarazpena egintzat joko da eta lege ondorioak izango ditu ebazpena argitaratu eta biharamunetik.

3. Behar den ebazpena eman eta argitaratu edo jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da; epe hori dagokion deialdia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen denetik aurrera kontatuko da. Epe hori amaitutakoan ez bada ebazpena jakinarazi edo argitaratu, eskatzaileek eskaera ezeztatzen joko dute, administrazioaren isiltasunagatik.

11. Erakunde onuradunen betebeharrak eta konpromisoak.

1. Erakunde onuradunek diru laguntzak onartzeak eragiten du, izaera orokorrek, 2007ko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauan, Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzkoan, eta foru arau hori garatzeko erregelamenduan (2008ko apirilaren 29ko 24/2008 Foru Dekretuak onartutakoan) ezarritako betebeharrak betetzea.

2. Entitatearen batek ez baditu osorik edo behar bezala betetzen aurreko puntuko betebeharrak edo oinarri hauen arabera onuradun gisa bete beharreko gainerakoak, egokitzen zaion diru laguntza dagokion proportzioan gutxitzea edo itzuli beharreko zenbatekoa zehaztea ekar dezake.

12. Erakunde onuradunen beste betebeharrak.

Kirol federazio onuradunen beste betebeharrak dira:

– Aurkeztutako jarduketaren planaren jarraipena egiteko batzordea sortzea. Bertan parte hartuko dute, gutxienez, Kirol Zuzendaritza Nagusiko bi kidek eta dagokion federazioko beste bik.

– Kirol Zuzendaritza Nagusian aurkeztea kirolaren eta ekonomia arloko memoria, federazioaren batzar orokorrek behin betiko onetsitakoa. Memoria hau hurrengo urteko martxoaren 31 baino lehen aurkeztuko da.

– Errespetatzea Gipuzkoan indarrean dagoen eskola kirolaren arloko araudia; eta baita ere eskola kiroleko programak garatzeko helburuarekin Gipuzkoako Foru Aldundiak modalitate bakoitzean laguntza teknikoak emateaz arduratzen diren entitateekin sinatutako akordioak.

– Euskadiko Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialen erabilera bermatzea diruz lagundutako jardueren eta programen inguruko adierazpen guztietan, Gipuzkoako Foru Aldundiaren jardueren esparruan hizkuntza ofizialen erabilera arautzen duen 4/2009 Foru Dekretuak, urtarrilaren 27koak, xedatutakoaren arabera.

tamento de Hacienda y Finanzas; y la secretaria técnica del Departamento de Cultura, Juventud y Deporte, en calidad de secretaria de la comisión; o personas en quienes deleguen.

10.ª Resolución de concesión.

1. La diputada foral del Departamento de Cultura, Juventud y Deporte será el órgano competente para resolver la concesión de las subvenciones contempladas en estas bases.

Cuando la Dirección General de Deporte lo considere oportuno, se podrá suscribir con la federación beneficiaria de la subvención, además, un convenio de colaboración en el que se recogerán los objetivos, programas deportivos, presupuestos, derechos y obligaciones que asumen las partes y demás aspectos relativos al cumplimiento de las funciones públicas de carácter administrativo, así como el importe de la subvención que por todo ello les corresponda.

2. Al amparo de lo dispuesto en el artículo 59.6.b) de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, la resolución de la convocatoria será objeto de publicación en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa, sustituyendo dicha publicación a la notificación individual y entendiéndose efectuada ésta a todos los efectos legales desde el día siguiente a dicha publicación.

3. El plazo máximo para dictar y publicar o notificar la resolución que corresponda será de seis meses. El plazo se computará desde la publicación de la correspondiente convocatoria en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa. Transcurrido dicho plazo sin haberse notificado o publicado la resolución, las entidades interesadas podrán entender desestimada su solicitud por silencio administrativo.

11.ª Obligaciones y compromisos de las entidades beneficiarias.

1. La aceptación de la subvención por parte de las entidades beneficiarias implica la sujeción a las obligaciones establecidas con carácter general en la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa y en su reglamento de desarrollo, aprobado por Decreto Foral 24/2008, de 29 de abril.

2. El cumplimiento parcial o insuficiente de las obligaciones señaladas en el apartado anterior, así como de cualesquiera otras que incumban a las entidades beneficiarias en virtud de lo dispuesto en las presentes bases, podrá determinar la minoración proporcional de la subvención que corresponda o, en su caso, la cuantía del importe a reintegrar.

12.ª Otras obligaciones de las entidades beneficiarias.

Son otras obligaciones de las federaciones deportivas beneficiarias:

– Crear una comisión de seguimiento del plan de actuación presentado, en la que participarán al menos dos miembros de la Dirección General de Deporte y otros dos de la federación correspondiente.

– Presentar en la Dirección General de Deporte la memoria deportiva y económica definitiva y aprobada por la asamblea general ordinaria de la federación, antes del 31 de marzo del año siguiente.

– Respetar la normativa sobre deporte escolar vigente en Gipuzkoa, y los acuerdos alcanzados ente la Diputación Foral de Gipuzkoa y las entidades encargadas de la asistencia técnica de cada modalidad en orden al desarrollo de los programas de deporte escolar.

– Garantizar el uso de las dos lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma del País Vasco en las comunicaciones referidas a las actividades y programas subvencionados, de acuerdo con el Decreto Foral 4/2009, de 27 de enero, que regula el uso de las lenguas oficiales en el ámbito de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

– Diruz lagundutako ekintzak edo jarduerak finantzaketa publikoa izan dutela publizitatea egitea: dela laguntza eman duen entitatearen irudi instituzionala sartuz; dela finantzaketa publikoari buruzko legendak jarritz karteletan, plaka oroigarrietan, material inprimatuetan, bitarteko elektronikoko edo ikus-entzunezkoetan; dela diru laguntza hedabideetan aipatuz.

– Hizkuntzaren eta irudiaren erabilera ez sexista bermatzea komunikazioetan, argitalpenetan, programetan, ikastaroetan, eta abar.

– Betetzea Euskal Autonomia Erkidegoko kirol federazioei buruzko 2006ko urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuak 82.2, 109.3 eta 142.1 artikuluetan xedatutakoa.

13. Diru laguntzen ordainketa.

Emandako diru laguntzaren ordainketa honela egingo da:

– Lehenengo ordainketa, emandako diru laguntzaren %60koa: diru laguntza emateko uanean.

– Bigarren eta azken ordainketa, %40koa: deialdiaren urteko azaroaren 30a baino lehen diruz lagundutako programa guztien kirol memoriak, memoria ekonomikoa eta gastu eta diru sarreraren zerrenda sailkatua eta zurigarriak aurkeztu ostean.

Entitate onuradunek zerga eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak bete izana egiaztatzeko agiri eguneratuak aurkeztu beharko dituzte, ordainketak egin ahal izateko; edo, agiri horiek aurkeztu ordez, espresuki baimena eman ahal izango dute informazio hori zuzenean Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentuari eman diezaioten organo eskudunek.

14. Diru laguntzen justifikazioa.

1. Egindako jardueren eta balioztatu beharreko baldintzen justifikazioa.

Jarduerak benetan egin direla eta balioztatu beharreko baldintzak betetzen direla justifikatzeko, behin-behineko memoria justifikatzailea aurkeztuko da deialdi urteko azaroaren 30a baino lehen: gastuen zurigarriekin batera. Gastuen zurigarriak diru laguntzaren zenbatekoaren kopuru bera edo handiagoa justifikatuko dute.

2. Kontu zurigarria.

Oinarri hauetako diru laguntzak egindako jarduerak zurriz dituen kontu zurigarri bat aurkeztuta zurrizko dira. Honako hauek bilduko ditu kontu zurigarri horrek:

– Laguntza emateko baldintzak bete direla azaltzen duen memoria: zer jarduera egin ziren eta zer emaitza lortu ziren zehaztuta.

– Diruz lagundutako jardueraren gastuak sailkatzen dituen zerrenda: hartzekoduna eta dokumentua, zenbatekoa, jaulkipen data eta, hala badagokio, ordainketa data identifikatuta. Diru laguntza aurrekontu baten arabera ematen bada, zein desbiderapen izan den adierazi behar da.

– Fakturak edo trafiko juridikoan antzeko frogabalia edo eraginkortasun administratiboa duten frogagiriak, horiek guztiak aurreko paragrafoan aipatutako zerrendan sartu badira; eta, hala badagokio, ordainketaren frogagiriak.

– Diruz lagundutako jarduera finantzatzeko izan diren beste diru sarrera edo laguntzen zerrenda: zenbatekoa eta jatorria barne.

Kontu zurigarri hori aurkeztu beharko da deialdi urtearen hurrengo urteko martxoaren 31 baino lehen.

15. Diru laguntzen itzulketa.

1. Entitate onuradunak ez baditu oinarri hauetan eta gainerako araudi aplikagarrian ezarritako baldintza eta betebeharrak guztiak betetzen, diru laguntza jasotzeko eskubidea guztiz edo zati batean galdutzat joko zaio, eta diru laguntza osoa edo zati

– Dar la adecuada publicidad del carácter público de la financiación de las actividades o actuaciones objeto de subvención, mediante la inclusión de la imagen institucional de la entidad concedente, así como leyendas relativas a la financiación pública en carteles, placas conmemorativas, materiales, impresos, medios electrónicos o audiovisuales, o bien en menciones realizadas en medios de comunicación.

– Garantizar el uso no sexista del lenguaje y las imágenes en todas las comunicaciones, publicaciones, programas, cursos, etc.

– Cumplir lo establecido en los artículos 82.2, 109.3 y 142.1 del Decreto 16/2006, de 31 de enero, de las federaciones deportivas del País Vasco.

13.ª Pago de las subvenciones.

El pago de la subvención se efectuará del modo siguiente:

– Un primer abono del 60% de la cantidad concedida: en el momento de la concesión.

– Un segundo y último abono del 40% al presentar, antes del 30 de noviembre del año de la convocatoria, la memoria deportiva de cada programa subvencionado, así como la memoria económica, relación clasificada de gastos e ingresos y justificantes.

Para poder realizar dichos pagos, las entidades beneficiarias deberán presentar la documentación actualizada del cumplimiento de las obligaciones tributarias y de Seguridad Social; o, en su lugar, podrán autorizar expresamente la cesión de dicha información al Departamento de Cultura, Juventud y Deporte por parte de los órganos competentes.

14.ª Justificación de las subvenciones.

1. Justificación de las actividades realizadas y de las circunstancias objeto de valoración.

La justificación de la realización efectiva de las actividades y de las circunstancias objeto de valoración se documentará en forma de memoria justificativa provisional y se presentará, junto con los justificantes de gastos por importe igual o superior al total de la subvención, antes del 30 de noviembre del año de la convocatoria.

2. Cuenta justificativa.

Las subvenciones objeto de las presentes bases se justificarán mediante la presentación de una cuenta justificativa de las actividades realizadas, que contendrá:

– Una memoria de actuación justificativa del cumplimiento de las condiciones impuestas, con indicación de las actividades realizadas y de los resultados obtenidos.

– Una relación clasificada de los gastos de la actividad subvencionada, con identificación del acreedor y del documento, su importe, fecha de emisión y, en su caso, fecha de pago. En caso de que la subvención se otorgue con arreglo a un presupuesto, se indicarán las desviaciones acaecidas.

– Las facturas o documentos de valor probatorio equivalente en el tráfico jurídico mercantil o con eficacia administrativa incorporados en la relación a que se hace referencia en el párrafo anterior y, en su caso, la documentación acreditativa del pago.

– Una relación detallada de otros ingresos o subvenciones que hayan financiado la actividad subvencionada, con indicación del importe y su procedencia.

Esta cuenta justificativa deberá ser entregada con anterioridad al 31 de marzo del ejercicio siguiente al de la convocatoria.

15.ª Reintegro de las subvenciones.

1. El incumplimiento por parte de la entidad beneficiaria de cualquiera de los requisitos y obligaciones establecidos en las presentes bases y demás normativa aplicable, dará lugar a la declaración de la pérdida total o parcial del derecho a la per-

bat eta dagozkion berandutza interesak itzuli beharko ditu, 2007ko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzkoak, 35. artikuluan ezarritakoari eta 2008ko apirilaren 29ko 24/2008 Foru Dekretuak onartutako garapen araudiko 63. artikuluari eta ondorengoei jarraikiz; eta hortik ondorioztaturiko erantzukizunei ere aurre egin beharko die, foru arau horren 49. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoari jarraikiz.

2. Ez-betetzeak mailakatzeko proportzionaltasun irizpi-deak erabiliko dira: eta egindako jarduera guztien eta jasotako zenbatekoaren arteko proportzioaren arabera kalkulatuko dira.

3. Emandako laguntzaren zenbatekoa, bakarka edo bestelako administrazio publikoen edo erakunde publiko nahiz pribatuen, estatuko zein nazioarteko, diru laguntzekin edota bestelako laguntzekin batera, handiagoa bada onuradunak aurrera eraman beharreko jardueraren kostua baino, itzuli egin beharko da egindako jardueraren kostuz gainetik eskuratutako diru kopurua.

16. Araudi aplikagarria.

Oinarri hauen xede diren diru laguntzei, bertan ezarritakoaz gain, honako hauek aplikatuko zaizkie: 2007ko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Araua, Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzkoa; eta hori garatzeko emandako araudia, 2008ko apirilaren 29ko 24/2008 Foru Dekretuaren bidez onartutakoa.

cepción de la subvención y a la obligación de reintegrar ésta total o parcialmente, junto con los intereses de demora correspondientes, conforme a lo dispuesto en el artículo 35 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa, y artículos 63 y siguientes de su reglamento de desarrollo, aprobado por Decreto Foral 24/2008, de 29 de abril, y a las responsabilidades que de ello pudieran derivarse, según lo dispuesto en el artículo 49 y siguientes de dicha norma foral.

2. Para graduar los incumplimientos se utilizarán criterios de proporcionalidad, que serán estimados en función de las acciones realizadas respecto a la totalidad de las mismas y a los importes percibidos.

3. Cuando el importe de las subvenciones o ayudas otorgadas, aisladamente o en concurrencia con las de otras concedidas por administraciones públicas o entes públicos o privados, estatales o extranjeros, exceda del coste de la actividad a desarrollar por la beneficiaria, se procederá al reintegro del exceso obtenido sobre el coste de la actividad desarrollada.

16.^a Normativa aplicable.

Las subvenciones objeto de las presentes bases se registrarán, además de por lo dispuesto en las mismas, por la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa, y su reglamento de desarrollo, aprobado por Decreto Foral 24/2008, de 29 de abril.